

Baionako ADA altzairutegiko langileek lehendabiziko greba egin zuten atzo

Soldataren %10eko igoera eta lanpostu finkoak galdegin dituzte lanuztearen bidez

Bokalen Ucin taldeak duen ADA altzairutegiko langileek lehen greba eguna izan zuten atzo. Goizeko 07:00etan lana utzita, gaur goizeko 07:00ak arte zuten egitekoa protesta, soldata igotzeko eskatu eta epe motzeko kontratua duten langile gazteei lanpostu finkoa galdegiteko.

Hur Gorostiaga / Baiona



Marcial Ucin taldeko ADA Baionako altzairutegiko langileak informazioa banatzen.

BOB EDME

ALTZAIRUTEGI berriaren instalakuntzaren ondoko polemikak zenbait hilabetez isildu ondoren, ADA berriz ere albistegietara heldu zen atzo, bertako langileek egindako lehen greba eguna zela medio. Goizeko 07:00etan lana utzita, zortzi orduko hiru txandek zuten greba egitekoa gaur goizeko 07:00ak bitartean.

Grebaren iturburuan langileen ordezkarien eta zuzendaritzaren artean etendako negoziaketak daude. Izan ere, altzairutegia maiatzetik erritmo osoan ari da lanean eta enpresak ibilimolde normala du gaur egun, Europako garrantzitsuenetarikoa izanki. Alabaina, langileen estatusa erabat orekatu gabe zegoen. Azken asteotan, soldataren 13. hilabetea negoziatu badute ere, kalifikazioaren arabera soldata finkatzerakoan desadostasunak izan dira eta negoziaketak apurtu egin dira.

CFDT sindikatuak salatu duenez, «zuzendaritzak finkatu nahi dituen soldatek ez dute metalur-

giako sektorean hitzartuak diren gutxieneko soldata errespetatzen». Gisa horretan, CGT sindikatuarekin batera soldaten %10eko igoera galdegiten dute, eta oraindik lan kontratu mugatua duten zenbait langile titulaztea ere bai.

Atzo eguerdian lantegitik atera eta altzairutegiaren aitzinetik igarotzen den bidea oren erdiz itxi zuten langileek, protesta modura, autoz iragaten zirenak informatzeko. CFDTren arabera, ADAko 147 langileetarik %90 izan ziren greban. ADAko langile-

ez gain, enpresak bertze hainbertze langile enplegatzen ditu mantentimendu, deskarga eta bertzelako lanetarako. Baina azken horiek, Air Liquide eta Gurelan enpresetakoak bezalaxe, ez zituzten grebara gehitzeko deitu.

Bart gauean grebak segituko duen ala ez erabaki gabe bazuten ere, badirudi ez dutela segituko, geldialdi luzeegiak sor ditzakeen arazoak direla eta. Enpresako labeak eguneko hogeita lau orduak lanean izaten direnez, hogeita lau ordu baino gehiago geldirik egoteak labeetan arazoak

sortzen omen ditu. Atzoko geldialdirako beharrezko neurri guztiak hartuak zirela segurtatu zuten grebalariek.

ADA altzairutegia Baionako portuko erabiltzaileetarik garrantzitsuenetarikoa da gaur egun. Izan ere, ADAk urtarritetik 750.000 tona baino gehiago mugitu ditu, erdiak baino pixka bat gehiago metal hondakinak ekartzen dituzten itsasontziekin. Horrez gain, berrikitan garabi berria instalatua dute, hondakinak alde batetik bertara garraiatzeko kakorik handiena duena. X

■ Bizkaiko gasolindegietako negoziazioetan ez diote LABi parte hartzen utzi

BIZKAIKO gasolindegietako lan hitzarmena negoziatzen ari dira, eta atzo bilera egin zuten patronaleko ordezkariek eta sindikatuak. Alorrean ordezkaritza duten sindikatuak bileran izan ziren, baina LABekoek ez zuten parte hartzerik izan, Julen Eguzkiza patronaleko ordezkariek ez zielako utzi. X

■ Sigmaren lur sailaren erabilera zehazteko Elgoibarko alkatea eta eta Sprilurko ordezkaria bilduko dira gaur

SIGMA konpainiak Elgoibarren (Gipuzkoa) zuen lur eremuarekin zer egin erabakitze-ko bilera egingo dute gaur Bilbon Elgoibarko alkate Giller- mo Garatek eta Sprilurko (Lur Industrialerako Bal- tzuak) zuzendari Jose Miguel Agirrek. Sigmaren lur ere- muaren gaia ez aurrera ez atzera egon da orain arte, eta egoera horrek ezin duela jarraitu uste du udalak. Aspaldi itxi zuten Sigma, eta ordutik 32.000 metro koadro- ko lurra erabili gabe dago. X

■ ELA eta LAB kontratu finko berrien aurka

ELA eta LAB sindikatuak, bai- ta ESK eta STEE ere, azken lan erreformaren ondorioz sortutako kontratu finko berria laguntzearen aurka agertu ziren atzo, Enplegua eta Formazio Programen Jarraipenerako Batzordean. Kontratu berriaren eta ohiko kontratu finkoaren arteko ezberdintasun bakarra kale- ratzearen kostua bada ere - merkeagoa kontratu berriare- kin-, gehiengo sindikalak uste du Madrilgo Gobernuak nahi- koa saritzen duela kontratu berri hori, eta ondorioz euskal Administrazioaren laguntza guztiak ohiko kontratu finko- ak suspertzera zuzendu beharko liratekeela. X

Daewooren aurkako errekursoak ez duela aurrera egingo uste dute Arabako patronalak eta Diputazioak

■ *Transpapeleko proiektua duela urtebete baino aurreratuagoa dagoela dio herrialde horretako Aldundiak*

Efe / Gasteiz

DAEWOO Koreako multinaziona- la Araban altxatzen ari den plan- ta berria dela eta, Arabako Aldundiak diru laguntzak emango dizkio enpresari. Etxeko tres- nen alorreko beste hainbat enpresak ez dute oso begi onez ikusten diru laguntza horiek eman izana, konkurrentzia des- leiala dela uste dutelako. Bruse- lara ere jo dute, eta hango tribu- naletan errekurtsioa sartu dute Arabako Aldundiaren erabakia- ren aurka. Arabako Aldundia eta bertako patronala (SEA), baina, lasai agertu dira, errekurtsio horiek ez dutela aurrera egingo ziurtzat ematen baitute.

Jose Zurita SEAKo ordezkariek gogorarazi duenez, Arabako Aldundiak eskubide osoa du enpresei pizgarriak emateko, eta Bruselako arduradunek errekur-

tsoa kontuan ez dutela hartuko ziurtzat eman du. Gregorio Alon- so Udal Harremanetarako dipu- tatuak esan duenez, ez da lehen aldia laguntzen aurkako errekur-

tsoa jartzen dutela, baina aurre- ko guztietan errekurtsioek ez dute aurrera egiterik izan.

Bestalde, Transpapel Austria- ko multinazionalak Ebro ibarre-

an jarri nahi duen paper lante- giaren proiektuaren inguruan, Alonsok esan du plan hori «duela urtebete baino aurreratuagoa» dagoela. X



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz
lagundutako egunkaria



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERREKTOREGO
RECTORADO

[Oharra]

TXIRRINDULARITZAKO MUNDU TXAPELKETA dela eta, urriaren 6tik 8ra bitartean Ibaetako Kanpuseko ikastegietan edota plaza-erreserba egin behar duten ikasleek (hau da, Enpresa Ikasketen U.E.n, Zuzenbide Fakultatean, OHOKO Irakasleen U.E.n, Arkitektureko G.E.T.n, Kimika Fakultatean, Informatika Fakul- tatean, Filosofiaren eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta Psikologia Fakultatean), jarraian adierazitako helbidera joan behar dute matrikula edo erreserba burutzera:

INDUSTRI INGENIARITZA TEKNIKORAKO U.E.
B eraikina - Bizkaia pasealekua, 21
DONOSTIA

salbuespena izanik Araba eta Bizkaian bizi direnak, Arabako Errektoreordetzatik eta Ikasleen Ataletik (Leioan) pasa daitezkeela.

Leioan, 1997ko urriaren 1ean.
Akademi Antolakuntzarako Errektoreordea, Luis Casis Saenz.